



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Jasangarritasun Energetikoari buruzko Lege Aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan martxoaren 27an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Bidalitako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena martxoaren 14koa da eta, maiatzaren 1ekoa Zerbitzu Juridikoaren txostena.

Bestalde, Agindu Proiektuaren gaztelaniazko zatia eta alde aurreko onarpena martxoaren 14an zintzilikatu baziren ere, euskarazko zatia martxoaren 27an igo da Tramitagunera.

Horrek zalantza sortzen du ea bete edo urratu ote den abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, aldez aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Halaber, kontuan harturik gaztelaniazko eta euskarazko zatien arteko data tartea, pentsa dezakegu gaztelania izan dela xedapenaren sortze hizkuntza eta euskarazkoa ondoren egindako haren itzulpena; hori horrela izanik, egokia deritzogu gogoraraztea zer dioen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren urtarrilaren 3ko 1/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratutako Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia *V. Plangintzaldiko (2013-2017) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia onartzeari buruzkoak*:

III.2.2.– Hizkuntza ofizialen erabilera eta itzulpenari buruzko irizpideak.

Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak esaten duenez, Administrazioaren komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egin behar dira; inon ez da esaten, ordea, itzulpena nahitaezkoa denik horretarako. Nolanahi ere, euskararen egoera soziolinguistikoa dela eta, hauxe izan da azken urteotako joera: testu gehienak gaztelaniaz sortu izan dira, eta gero euskarara itzuli. Gauzak horrela egiten badira, garbi dago erdal testuak markatzen dituela maiz euskal itzulpenak izango dituen egitura, estiloa eta itxura.

III.2.2.1.– Idazketa elebiduna.

Mendekotasun hori bazter uzteko, Eusko Jaurlaritzak eta beraren erakunde autonomiadunek, ahal den neurrian, bermatuko dute administrazioako agiri elebidunak sortuko direla itzulpen zerbitzuetara sistematikoki jo gabe. (...)

III.2.2.2.– Korredakzioa.

(...) Idatzi beharreko testuaren edukia eta ezaugarriak zein diren jakin ondoren, bi korredaktoreak ados jarriko dira testuaren helburu, egitura, estilo, hiztegi, testu-aipamen, tonu eta gainerakoetan. Hori eginda, korredaktore bakoitzak bere irakurleen kulturaren ezaugarrietara moldatuko du testua.

Horrela bada, Eusko Jaurlaritzak eta beraren erakunde autonomiadunek neurriak hartuko dituzte, korredakzioak arian-arian bere tokia izan dezan sail guztietan eta erakunde autonomiadun guztietan; hori bai, komunikazioaren baldintzek horretarako bide ematen badute.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Aztertzea eskatu zaigun xedapenaren edukietan hizkuntzen gaiari buruzko aipamen zuzenik ez dago. Halere, badaude hizkuntzarekin lotura duten aurreikuspenak.

Hizkuntza eskubideak eta euskararen normalizazioa, genero berdintasuna bezala, zeharka zaindu beharreko gaiak izanik, arreta deitzen digu generoari buruzko hiru aipamen aurkitzea (6. artikuluan herritarren parte hartzeari lotuta, 9. artikuluan eratzen diren batzordeak osatzerakoan eta 28. artikuluan informazioen zabalkundearen harira) eta hizkuntzari egiten zaion aipu bakarra “*hizkuntza inklusiboari*” buruzkoa izatea.

Genero berdintasunari bideratutako aurreikuspenak oso egokiak iruditzen bazaigu ere, uste dugu hizkuntza eskubideak eta euskararen normalizazioa ere kontuan hartu beharrekoak direla.

Horrela, komenigarria ikusten dugu 6.1.g) artikulua idazkera moldatzea jarraian proposatzen dugun esaldia, edo antzekoa, txertatuz:

6. artikulua. Printzipioak.

1.- Lege honek printzipio hauek ditu oinarri:

*g) Herritarrek jasangarritasun energetikoaren arloko politikak diseinatzen eta erabakiak hartzen parte hartzea, zuzenean edo elkarte bidez eta dagokien arauak ezartzen dutena betez. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua egon dadin saiatu behar da; kontuan hartu behar da ez dutela parte hartzeko modu bera batzuek eta besteek, eta, horrenbestez, konpentsazio-estrategiak aurreikusi beharko direla. **Herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz euskararen normalizazioa sustatuko da.***

Esan bezala, 9. artikuluan aurreikusten da administrazio bakoitzak *Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea* osatzea, batzorde horietako kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez eta, batzordeko gainontzeko kideen hizkuntza eskubideak

modu eraginkorrean bermatzeko, komenigarria ikusten dugu 9.3 artikuluko horretako idazkera moldatzea jarraian proposatzen dugun esaldia, edo antzekoa, txertatuz:

9. artikulua. Jasangarritasun energetikoaren batzordeak.

3.- Administrazio bakoitzak erabakiko du bere batzordeak zer kide eta funtzionamendu izango dituen, betiere emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu bermatuz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7. eta 23. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Batzordeko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea. Batzordeko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Batzordeak horrela erabakitzen bada bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

28. artikuluari dagokionez komenigarria ikusten dugu bere 1. ataleko idazkera moldatzea jarraian proposatzen dugun esaldiak, edo antzekoak, txertatuz:

28. artikulua. Jasangarritasun energetikoari buruzko informazioaren zabalkunde, prestakuntza eta sentsibilizazioa.

1.- EAEko administrazio publikoek (...)

Zabalkunde-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-lanak egiterakoan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz euskararen normalizazioa sustatuko da eta hizkuntza inklusiboa erabili behar da beti, bai testuetan bai irudietan, eta rolik eta estereotiporik ez erabiltzen saiatu, bai herritarrei begirako zein administrazio barruko jardueretan.

Horiek horrela jasota ulertzen dugu 10. artikuluari ere eragingo lioketela inbentarioak eta haiekin erlazionatutako informazioa publiko egiterakoan; 13. artikuluan aurreikusitako herritarren parte hartzeari planak egiteko prozesuetan; 22. artikuluko mugikortasun planetan herritarrei zuzendutako informazio eta parte hartzeari; 23. artikuluko txosten argitalpenei; 24. artikuluko barne prestakuntzari; eta, 25. artikuluko etiketei.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria